

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

## 115

*AGINDUA, 2019ko abenduaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko Aginduaren 3. oinarrian agindutakoari jarraituz (agindu horretan egiten da deialdia sail honetako lanpostu huts bat izendapen askearen bidez betetzeko), honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza, 520010 zenbakiko kodea, 108. dotazioa.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko agindua eman duen organoari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hileko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 18a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
SONIA PÉREZ EZQUERRA.